

Gudarien Eguna

Alderdi, 267. zk., 1971-09.

Euzkadi ez da gudari-erria.

Iñoiz ez da gure erria guda-zale izan; Malatoko zuaitzaren (Bizkaiko Fueroa, 4en legea, leengo tituloa) tradizioak berak adierazten du ez gerala ixtorian beste iñoren lur eta ondasunen atzetik ibilli, erri bezala beintzat; baliteke (eta au pekatua balitzake bezala ari gera ordaintzen!) gure erriaren gaurko egoera gure zuzentasun onetxeren ondorena izatea. Ala ere, guda ezarri digutenean, beste biderik gabe gurea dena defenditzeko estuasunean jarri gaituztenean, artu izan ditugu eta artuko ditugu guk ere, armak, gizonak gera-eta.

Ori izan dira gure erriko gudariak: gizonak.

Gaur oraindik gazteak geranok ez dugu beti kondar oietaraiño ekarri gaituan guda ulertzen. Gure aurrerakoak gudara deituak izan zirenean ez ziren iñor menderatzeko bidean jarri, eta estuasun artan gure errian orduko gazteen artean gudari azkarrak bezala nabarmendu zirenak bere etxean gordetzeko sua arotutako galtzairua besterik ez zuten erakutsi.

Gudari aietako asko eta asko nai izan ez zuten eta ezin besteko eta osatu eziñeko gudan eman zuten bizia.

Gudari oiek gogoko ditu eta gogoratzen ditu gure erriak, noski, eta azkatasunaren argiak egiten diranean geiago zabalduak izango dira gizon oien egintzak. Beste batzuk zorigaiztoki guda ura galtzeko pixu aztuna bere gain artu (askotan frentean iltzea obe!) eta ezpetxeak eta amaika nekeren ondoren il direnak ere ba dira, eta ez ditugu aaztutzekoak. Eta oraindik gaurdaiño eldu diren gudari aietako gizonak gurekin dauzkagu, eta askok gaurdaiño ejemplo bizi bezala lanean iraun dute. Bizirik gaur arte eldu diren oiek ere merezi dute, noski, gure betiko eskerra eta gure gaurko gazteen oroimen mamia. Denok, bata bestearen urren eta bakoitzak lekuz-leku eta garaiz-garai egin duguna lortuko dugu Euzkadin; ez geiago, eta ezta gutxiago ere! Ez da gauzik, ez eta erririk ere, atzorik gabe, eta gaurtasunik gabe ere ez; atzokoaren gaiñean gaurkoa jaso gabe ez dago ezer. Ixtoriak eta zibilizazioak errex erakusten du au. Atzokoak zokoratzeko tentaldiak garaitzen ez duen gizonak eta erriak ez dira iñolatan ere biarko bear dituen oiñarriak jartzeko gauza izango. Atzokoen gaiñean edo ondoren eta obetuz lan egin bearrean arkitzen dira gizonak eta erriak non nai iñolatan gora-bidea artuko badute.

Atzo (eta eraneun eta eraneun-aurretik) Euzkadiren gudari izan diranez bijoakie gaur gure agurra, oroimen beroa eta esker ona. Bilduko dira il ontako egunen batean zenbait eta Euzkadiko nonbait. Gaurko egoeran ez dugu besterik egiterik izango, eta ez da gutxi. Ala ere, etorriko aal da laizter, eta erri guzia bide dela, gure erriko gudariak izan diranei zor diegun omena egiteko garaia; bitartean, gure eguneroko lanekin erakutsi dezaiegun gure gogoia.

Gaur ere ba ditu Euzkadik gudariak lanean.

Askok nai baiña geiago eta geiago dira gaur ixilean eta mila lanbideetan gaurko gudari euskotarrak bezala jokatzen ari direnak. Oietako abertzale sail eder bat kartzelan dago, neke aztunen indarrak zanpatuta dago eta gure laguntzaren bear gorrian dago. Batetik, ukatu ezin dugun diru laguntza; eta bestetik guk Euzkadiren alde egin aal dugun guziaren laguntza, biak, zor dizkiegu gaur kartzeletan dauden gudari gazteei.

Atzoko gudariak eta gaurkoak, 1936ean ezarri ziguten zorigaitzeko guda ura bukatu arteakoak, gizonarentzat eta erriarentzat askatasuna lortu bitarteko guziak, jaso bezate gaur gure omena eta gure lanerako asmoen ziña.